

HERRITARREKIN ETA HERRIARENTZAT LAN EGITEKO PREST

Elkarbizitza eta herritarren partaidetza funtsezko ardatzak.

Ezagutzen dugu Zaldibia. Lantalde zabal eta anitza gara. Elkarbizitza errespetuan oinarritua nahi dugu. Zuk ere baduzu tokia gure proiektuan eta oinarrizko ideietan. Zatoz gurekin eta eraiki dezagun guztiontzako herri bat, elkarbizitza hobea, integrazioarako hobea eta askatasunerako hobea.

Udal gaietan herritarrek parte hartzeko modua arautuko duen araudia garatuko dugu.

Udal eskumenak garatuko ditugu arazoei aurre eginez eta baloiak kanpora bota gabe, udalari dagozkion erabakiak udal plenoak har ditzan.

Gardentasuna denaren gainetik, adiskidekeriarik beharrik gabe, baliabide eta ekintza etikoen bidez.

Lantalde gardena gara. Zalantzarik gabe, gardentasuna erabili behar dugu gure lana egiterakoan. Adiskidekeriarik gabe, faboritismorik gabe eta inposiziorik gabe.

Kontrol eta herritarrei informazioa emateko baliabide egokiak garatuko ditugu eta etika publikoaren oinarrizko printzipioek arautuko dituzte gure ekintzak.

Herri baliabideak erabiltzerakoan erantzukizuna eta zorrotasuna.

Udal baliabideak modu egokian kudeatzeko lantalde trebea eta ikasia gara. Herria hobetzeko ideia eta proiektu berrien ekarpena egiteko. Orain arte hori egin dugu eta egiten segituko dugu. Zergak zorrotz kudeatuz. Zorra eta etorkizunerako inbertsio estrategikoen arteko orekari eutsiz. Erantzukizunez eta eskarmentuarekin.

Herrian udalak zenbat lokal dituen zerrendatu eta jakingo dugu, lokal bakoitza zertarako erabiltzen den zehaztuz. Ondoren, herrian antzematen diren beharrak zerrendatu eta datu horiek eskuratuta, planifikazio bat egin, ditugun lokalekin nahikoa den edo lokalen funtzioak aldatuko balira, utzitako lokalekin zer egin behar den aztertzeke, ondorioz gauza batzuk luzerako planifikazioan sartuko genituzke.

Gure proposamenetan, beraz, epe motzerako eta epe luzerako proposamenak landuko ditugu. Etorkizuna izan daitekeelako 4/5 urte barru edo 10/15 urte barru.

Horrez gain, filosofikoki, herrian oinezkoen gunea, ez da zuhaitzak jarriz lortzen, gunea integrala lortzeko ahaleginak egin behar dira eta horregatik, iruditzen zaigu, udaletxea, plaza, frontoia, eskola eremua... gunea integral bezala aztertu eta tratatuko ditugu. Dena den, hain herri txikia izanda, ez dugu uste oinezkoentzako bakarrik utzi beharko litzatekeenik kale eremua.

Zerbitzu eta komertzioei dagokienez, gure helburua, daudenak mimatu eta garatzen laguntzea da; belaunaldien errelebo ahal den heinean erraztuz. Ez dauzkagunen (arrandegi, gasolindegia, haurtzaindegia duin, jangela, eguneko zentroa...) azterketa egin eta nola edo ahala erakarri, erraztasunak emanaz horretarako.

Zuntz optikoaren azpiegitura herri osora zabaltzeko ahaleginak egin.

Hori izan da gure betiko eskarietako bat. "Zulo digital" deritzona saihesteko eta gure inguruko herri handietan bizi direnek bezain komunikazio digital onak izan ditzagun guk guztiok ere. Herri txikitara bizi izateak, ez baitugu bizi kalitatean kalterik ekarri behar arlo horretan.

Gure gazteen lan etorkizunari laguntza eman.

Gure gazteen etorkizun pertsonal eta lanekoak kezkatzen gaitu. Horretarako funtsezkoa da hasierako ikasketak eta batxilergoaren ondoren egin beharreko ikasketak ondo aukeratzea (goi mailako ingeniariak eta Lanbide Hezkuntza, osasuna, teknologia digitalak, enpresen kudeaketa eta abar) eta hizkuntzak ikastea.

Adituak ekarri nahi ditugu, gazte eta gurasoentzako informazio saioak antolatu eta ikus etorkizunerako lan gehiago izateko prestakuntza aukerak zeintzuk diren.

Gaur egun haur eta gazteentzat egiten diren ekintzez gain, aste bukaerarako kultur eta aisialdiko egitaraua antolatzea proposatzen dugu haur eta gateentzat. Irakurketa, antzerkia, mimo, ipuin, musika, zine eta aisialdi ekintzak izan daitezke. Kultura gertutik bizi eta maitatzen ikas dezaten. Ekimen berriak bideratu nahi ditugu, baloreetan oinarritutakoak, beti ere.

Herriko festak eta helduen kultur eta kirol taldeak sendotzen jarraitu.

Genero berdintasuna

Genero berdintasunaren aldeko militante aktiboak gara. Pertsonetik eta bere duintasunarekiko errespetua da genero berdintasunaren printzipio nagusia. Gizarte batek bi hego behar ditu aurrera egingo badu: gizonezkoak eta emakumezkoak.

Sentiberatasunerako kanpainak garatuko ditugu eta herriko emakumeen taldearekin lankidetzan, garatzen dituzten ekintzak bultzatuko ditugu.

Justizia etikoak halaberrez eskatzen digu herriak sozialki kohesio bat behar duela.

Gizarte premia bereziak dituzten herritarrak izango dira gure helburu, orain arte bezala. Zerbitzu egokiak eskaintzeko baliabideak indartu nahi ditugu: Eguneko Zentroa, Jubilatuen eta erretiratuen baliabideak sendotu, beraiekin batera, horien aisialdi eta zahartze aktiborako ekintzak antolatu.

Ingurumena eta hondakinen birziklapena

Atez Ateko zabor-bilketa sistema ekonomikoki bideraezina dela egiaztatu da.

Zabor-bilketarako sistema modernoa, jasangarria, garbia eta eroso defendatzen dugu. Sen ona. Osoko sistema bat, zaborrak behar bezala sailkatu eta jasotzeko plangintza on batekin, gaur egun herrian ez duguna.

5. edukiontzia jartzea proposatzen dugu, etxeko konpostajearekin bat datorrena. Tolosa edo Elgetan bezala.